

Zuzentzen testuak bizkaitarrez idatziak (I)

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

Mondragon Unibertsitatea
mitxel_kaltzakorta@huhezi.edu

Abstract

The author proposes to examine a number of texts written in Bizkaian. Since there is not much to correct about the grammar of the texts (grammar mistakes are scant), this contribution focuses on the textual level, particularly the so-called thematic progression. That is, the author looks at the thematic progression from paragraph to paragraph, from sentence to sentence, from the title to the first paragraph, and within each sentence (from start to end).

Laburpena

Egileak arteztu gura ditu hainbat testu bizkaitarrez idatziak. Testuok, arlo gramatikalean zer zuzendu gitxi izango dabenez (akats gitxi egiten dira-eta), ardatz izango dabe arlo testuala, batez be, progresino tematikoa dalakoa. Zehatzago esateko, jorratuko da zelan egiten dan progresino tematikoa paragrafotik paragrafora, perpausatik perpausa, titulutik lehenengo paragrafora eta perpaus barruetan (hasikeratik amaierara).

Keywords: theme (topic of discourse), rheme, thematic progression, coherence, cohesion, appropriateness, thematic coherence, grammatical level, textual level, macro-coherence, micro-coherence

Gako hitzak: temea (mintzagaia), remea, progresino tematikoa, koherentzia, kohesinoa, egokitzapena, koherentzia tematikoa, arlo gramatikala, arlo testuala, makrokoherentzia, mikrokoherentzia.

0. Sartaurrea

Artikulu honetan eta hurrengoetan arteztu gura neukez testutxu batzuk bizkai euskeraz idatziak eta akats bakoak-edo gramatika arloan. Irakurleak itaundu leike zer zuzendu ete leitekean testu baten, ondo badago erabilita gramatika arloa (La gramática es el arte de hablar y escribir correctamente). Horra zer irakatsi euskuen gaztetan eskolan. Guzurra galanta!

Aztergaian dzangada sakonagoa egin aurretik, pare bat kontu argitu nahi neukez. Izan be, irakurle batzuk konkortuta edo txundituta egon leitekez irakurrita berba bi eurentzat arrotzak, ezezagunak (bizkaitarrez eta bizkai euskeraz). Nire eguneroko bizitzan, txikitatik bertatik, normal-normal entzun eta erabili izan ditut bizkaitar (lekeitiar, ondarrutar...) egin eta bizkaitarrez (lekeitiarrez, ondarrutarrez...) egin (zeinda euskera egin eta euskeraz egin legez). Alfabetau ahala ikasi nebazan bizkaieraz (gipuzkeraz, nafarreraz...) egin, baina berbok sekula ez nebazan/ditut entzun izan herritar euskeraz eskolabakoen ahotik. Geroago ikasi neban erabilten bizkai euskera (lehenengoz Peru Abarka-n irakurri neban). Orain dala urte batzuk artikulu bat idatzi neban aldizkari baten, eta bertan lehenengoz-edo erabili nebazan bizkaitar(rez) eta bizkai euskera(z). Baina aldizkariko zuzentzaileak, nigaz kontsultau barik, kendu egin ebazan adierazpide bata zein bestea, eta bien orde z idatzi bizkaiera(z). Hori ikusita, jakina, haserre parau nintzan, eta jakinminez, Orotariko Euskal Hiztegia kontsultautu, horra zelan jakin neban neologismoa zala bizkaiera berbea. Gaur egun bizkaitar idazle batzuk ia normal erabilten ditue bizkai euskera(z)

adierazpideak, batuan zein bizkaitarrez. Ez dot inoiz irakurri bizkaitar(rez) egin, oker ez banago, baina adierazpide horreek gurago ditut erabili, ahalean (herriak berak dagoz sortuta-eta), eta ez bizkaiera(z) (nor edo nork asmatuak, ez ekialako, ustez, behar beste euskerea), baina atzen horreek ez ditut baztertu edo alboratuko, sustraitu egin dira-eta batez be idatziz, gehiago-gitxiago sustraitu be.

Pasata aztergaira, esan daigun kontu bat danok-edo dakiguna: orokorrean esateko, moldakatx idazten dogu, kamuts arlo testualean; eta, horrenbestez, liburu-artikulu askotxo penaz eta nekez irakurten diranez, albo batera izten dira. Ez dot esango, lartxo litzateke-eta, edabe magikoa daukadala (bizkai) euskerearen gaitz testual guztiak osatzeko, baina badaukadaz errezetak hainbat gaixotasunentzat, osabedarrak aje askorentzat, eta osabide horreetzek gura neukez erakutsi-irakatsi artikuluotan.

Arlo testualean zertzuk problema daukaguz zuzentzeko? Ez dogu ondo sekuentzietan informazioa, iruntzitara erabilten dogu, atzekoz aurrera. Berba tekniko bidez esateko, gure idazkietan oker erabilten dogu progresino tematikoa dalakoa. Kontzeptu hori non kokatu behar dogu? Jakinda idatzi bat testutat joteko hiru lege-edo bete behar dirala

- koherentzia
- kohesinoa
- egokitzapena

zeinetan sartu behar dogu? Ez dago adostasunik adituetan: batzuk -gehienak- uste dabe koherentzian;

beste batzuk, kohesinoan; eta beste batzuk, lege bataren eta bestearen artean, zangalatrau.

Progresino tematikoak “tema-remā” egitura dauka, temeak (edo mintzagaiak) adierazoten dauala zeren gainean egiten dan berba (edo idatzi), eta remeak, zer esaten dan temearen gainean. Esaterako, ikusi hurrengo perpausetan zer diran kontzeptu biok:

(a) Kepa ondo bizi da

temea = Kepa;

rema = ondo bizi da

(b) Gaur domekea da

temea = gaur;

rema = domekea da

(c) Kepari, jostailua ekarri deutso Olentzerok

temea = Kepari;

rema = jostailua ekarri deutso Olentzerok

(d) Zure gainean, txakurrenak esan dabez

temea = zure gainean;

rema = txakurrenak esan dabez

Temea, kokalekuz, lehenengo erabilten da eta ostean remea, baina batzuetan mintzagaia agertu leiteke atzean be. Bestalde, tema subjektua izan ohi da, baina baita edozer elementu be, goiko adibideetan ikusten danez.

Holako kasu sinpleak, eta beste batzuk, katramilatsuagoak, testu aztergaietan jorratuko ditugu, agertu ahala jorratu be (oraingoz, hurrengo artikuluetarako itziko ditugu azalpen teoriko sakonagoak). Progresino tematikoa maila bitan aztertu behar da testu baten: makrokoherentzian (testu maila) eta mikrokoherentzian (paragrafo eta perpaus mailak). Argiago eta zehatzago jakiteko zer ulertzen dodan progresino tematikotzat (zelan mamitzen dodan “tema-remā” egitura), bestelako azalpen batzuk emongo ditut, hurrengo hiru mailotan emon be (eta eurok geroago, testurik testu erabiliko ditut, batez be azkenengo biak):

1. Testu mailan
2. Paragrafo mailan
3. Perpaus mailan

Hasi gaitezan testu mailatik, eta ipini daigun adibide bat edonork ulertzekoa. Testu bat badaukagu bost paragrafoz osatua eta ezin hobeto idatzia, eta eginez gero paragrafo truke bat (esate baterako, bigarren eta laugarren paragrafoen artean), testu txarra izango da (edo ez da ezta testua be izango). Danok dakigu-edo, bai behintzat profesionalok, laprastada gogorak dirala holako akatsak progresino tematikoan, eta inork be ez dituela onartzen (maila honetan ez dot uste akats nabarmenik aurkituko dogunik testu aztergaietan).

Pasa gaitezan paragrafo mailara, eta egin daigun paragrafo bat daukagula bost perpausaz jantzia eta

ondo-ondo idatzia. Aldatuz gero perpaus bi lekuz, esaterako, lehenengo bigarren jarrita, eta bigarrena lehenen, esan beharko genduke txarto dagoala paragrafo hori progresino tematikoaren aldetik (saltoak dagoz perpausen artean, transizino txarra). Holako zenbat trakeskeria dagoz han eta hemen!

Oratu deiogun hirugarren mailari, perpaus mailari. Jo daigun perpaus bat daukagula lau zatiz hornidua, eta hau be ondo baino hobeto dagoala idatzita. Trukau daiguzan zati bi lekuz (berbarako, lehenengo ipinita azkenen, eta atzenengoa lehenen). Esan beharko genduke perpaus hori txarto sekuentziauta dagoala progresino tematikoan (transizino txarra dago perpaus zatien artean, saltoak). Holako taxubakokeriak bazterrak adibide ikusten dira bazterretan.

Holako testu-akatsak (transizino txarrak, saltoak...) normal-normal egiten ditugu paragrafo eta perpaus mailetan, eta holakoz josita dagoz liburu-agerkariak; osterantzean esateko, laprastada nabarmenak egiten ditugu progresino tematikoan (mikrokoherentzia arloan).

Hortaz, arlo testual horretan sartu gura dot musturra, eta irakatsi, ahal bestean, zelan saihestu gaur egin ohi diran salto informatibo edo transizino oker asko (ez danak) perpaus artean, perpaus barruan eta paragraforik paragrafora -edo titulutik azpitolura edo titulutik (edo azpitolutik) testura bertara-. Gura badogu irakurleak testua irakurri dagian errez, normal eta natural, ikasi egin behar dogu ondo sekuentzietan informazioa, batez be kazetaritzan-eta (herri-euskerea erabilita).

Artikuluotan (honetan eta hurrengoetan), esan dot lehenago, testu bizkaitarrez idatziak erabiliko ditut, paragrafo bakarreko, biko edo gehiagokoak, eta handik-hortik-hemendik hartuak. Ahaleginduko naz artezten testuak progresino tematikoaren aldetik (baita gramatikarenetik be, ezer okerrik badago) edonork ulertzeko moduan, terminologia sinplea eta gardena erabilia, ahaleginez.

1. Testuak artezten

Pasa gaitezan testu bizkaitarrez idatziak artezten edo zuzentzen. Lehenengo artikulua honetarako hiru testutxu aukeratu ditut zer zuzendu askokoak testu arloan. Lehenengo osatuta dago paragrafo bakarrez; bigarrena, biz; eta hirugarrena, perpaus bakarrez.

Irakurlea, sartaurrean esan dodanez, testutxo guztiak perpausik perpaus aztertuko ditut progresino tematikoaren aldetik:

1. **Perpausetik perpausera** (ea zelan egiten dan transizino hori aurreko perpausetik hurrengora, saltorik ete dagoan, lotura elementua azken perpausaz segidan agertzen dan edo atzerago).
2. **Perpaus barruan** (ea hasikeratik amaierara arte ondo sekuentziauta dagozan osagaiak, salto barik, ondo hierarkizauta).

Hasi gaitezan lehenengo testutxutik, paragrafo bakarrez osatua.

1.1. 1. testua

Azoka Alternatiboaren IX. edizinoa ospatuko da aurten Durangoko Sapuetxe gaztetxean. Azokak iraungo dauen egunetan aurkezpen eta kontzertuz beteriko egitaraua izango da bertan, eta, zelan ez, irabazi asmorik bako ekoizleen lanak ikusgai egongo dira gaztetxe alboko karpan. Kultur ekoizpenak komertzioetik kanpo egotearen beharra aldarrikatu gura dabe ekimen honekin, baita kolektibo txikiei lekua egin be.

Testutxu horretan (titulu barik) aztertu daigun lehenengo perpausa progresino tematikoaren aldetik, ea dagoan hobeto sekuentzietarik osagaiak:

- (1) Azoka Alternatiboaren IX. Edizinoa ospatuko da aurten Durangoko Sapuetxe gaztetxean.

Perpaus hori ez dago, esateko, txarto adierazota, baina hobe leiteke operazino batzuk eginez gero. Egin deiogun lehenengo orraztua, “Azoka Alternatiboaren” informazinoa bihurtuta “Azoka AlternatiboaK” (holan gardenago dago temea edo mintzagaiia *Azoka* dala; eta, gainera, errezago irakurten da):

- (1a) Azoka AlternatiboaK IX. edizinoa ospatuko DAU aurten Durangoko Sapuetxe gaztetxean.

Orraztuak aldaketea eragin dau aditzean (*da* bihurtu *da dau*). Gehiago be orraztu leiteke perpausa:

- (1b) Azoka Alternatiboak IX. edizinoa ospatuko du aurten DurangoN, Sapuetxe gaztetxean.

Ikusten dogunez, osagarri batetik,

“Durangoko Sapuetxe gaztetxean”, bi egin ditut (“Durangon” eta “Sapuetxe gaztetxean”) (Inork gura badau informazino gehiago holako kasuen gainean, ikusi begi *Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (I), 5. unitatea* Kaltzakorta, 2007). Operazino hori arrunt erabilten da ahozko euskeran, hiztun onetan behinik behin. Goazen bigarren perpausera, beronen lehenengo partera (alkarren segidan ipiniko ditut lehenengo perpausa eta bigarrenaren lehenengo zatia):

- (2) [Azoka Alternatiboaren IX. edizinoa ospatuko da aurten Durangoko Sapuetxe gaztetxean] [Azokak iraungo dauen egunetan aurkezpen eta kontzertuz beteriko egitaraua izango da bertan,]

Jorratu daigun bigarren perpausa progresino tematikoaren aldetik (ea zelan egiten dauan transizinoa aurreko perpausagaz eta perpaus barruan). Perpaus biak gai edo tema bera (*azoka*) partekatzen dabe (koherentzia

tematikoa dauke), bigarrena lehenengoari lotzen jakola *azoka* berbearen bidez; eta, horrenbestez, kohesino perfektoa lortu (lehenengo lekuan dago-eta). Perpaus batetik bestera transizino ona dago, progresino tematiko ezin egokiagoa. Baina bigarren perpausaren barruan bertan ez dago hain progresino tematiko ona, eta hainbat sasi kendu behar dira eta aldaketa batzuk egin:

- (2a) Azokak irauTEN dauen egunetan, (bertan) egitaraua beteRIK EGONGO da aurkezpen eta kontzertuz,

Agirian dagoanez, honako operazino honek egin ditut:

1. Hasikeran, *iraungo* barik idatzi dot irauten.
2. *Bertan* erakuslea aurreratu egin dot, loturea estuago egiteko *azoka* berbeagaz, baina kendu be egin leiteke. Horra zergaitik erabili dodan parentesia.
3. Aditza aldatu egin dot, *izan*-etik (izango da) pasa naz egon-era (egongo da).
4. Desegin egin dot erlatibo jokatu bakoa (*aurkezpen eta kontzertuz beteriko*), eta *beteriko* bihurtu dot *beterik*.
5. Euskeraz, komeni da *beterik* (edo *beteta*, edo *betea*) erabiltea *egon* aditzagaz (ez *izan*-egaz).

Beste proposamen bat be egin leiteke (2a) beste era batera emoteko, nire ustez naturalago:

- (2b) Azokak **irauten dauen bitartean**, egitaraua beterik egongo da aurkezpen eta kontzertuz,
- Azokak **iraun bitartean**, egitaraua beterik egongo da aurkezpen eta kontzertuz,

Aukera bi eskeini ditut: batetik, aditza jokatuta eta, bestetik, aditza jokatu barik. Euskaldun batzuk *bitartean* barik *artean* erabilten dabe, edo beste elementuren bat.

Beste ikuspegi batetik be emon leiteke perpaus osoa, pentsaurik bigarren perpausuan *bertan*-ek lotura zuzena egiten dauala lehenengo perpausagaz. Horren arabera, *bertan* ipini beharko litzateke aurrerengo eta...:

- (2c) (Bertan) egitaraua beterik egongo da aurkezpen eta kontzertuz, azokak irauten dauen bitartean.
- (Bertan) egitaraua beterik egongo da aurkezpen eta kontzertuz, azokak iraun bitartean.

Gurago ditut (2b)ko aukerak (2c)koak baino. Heldu deiogun bigarren parteari bigarren perpausuan, aurretik ipinita lehenengo partea:

- (3) [Azokak iraungo dauen egunetan aurkezpen eta kontzertuz beteriko egitaraua izango da bertan,] [eta, zelan ez, irabazi

asmorik bako ekoizleen lanak ikusgai egongo dira gaztetxe alboko karpan].

Bigarren partea ondo dago dagoan bestean progresino tematikoaren aldetik (lehenengo parteari buruz). Errezagotu leiteke, atzerakargea kenduta osagarri bati: “irabazi asmorik bako ekoizleen lanak”. Horretarako, aurreratu beharra dago informazio burua (*lanak*); atzeratu, gainerako informazioa (*irabazi asmorik bako ekoizleen*), eta azken hau beste formato baten aurkeztu:

- (3a) eta, zelan ez, lanak, irabazi asmorik bako ekoizleak EGINAK, ikusgai egongo dira gaztetxe alboko karpan.

Badago beste aukera bat be, *lanak* bihurtuta *lan batzuk*:

- (3b) eta, zelan ez, lan BATZUK, (EUROK) irabazi asmorik bako ekoizleak eginak, ikusgai egongo dira gaztetxe alboko karpan.

Baina (3a)tik eginga aurrera, beste aukera bat dago:

- (3c) eta, zelan ez, ikusgai egongo dira lanak, ekoizle **irabazi asmorik bakoak** eginak, gaztetxe alboko karpan.

Erreparau, irakurlea, baltzeko informazioari. Holakoak adibide askotxo dagoz idatzizko tradizioan, eta gaur egun be entzuten dira antzekoak (AMA seme harroa / ALKONDARA manga luzea, 3 DAMATXO Donostiako(ak)...). Bestalde, batzuk gurago leukee ikusi NON osagarria (*gaztetxe alboko karpan*) aurrerengo lekuan, *ikusgai*-ren aurretuan. Nik uste dot eten egingo leukeala informazioaren haria, perpausaren lehenengo partetik datorrena; eta, horrenbestez, egokiagotzat daukat dagoan lekua, azkenengoa. Oratu deiogun atzenengo perpausari (aurrean dauala azkenaurrekoa):

- (4) [(...), eta, zelan ez, irabazi asmorik bako ekoizleen lanak ikusgai egongo dira gaztetxe alboko karpan]. [Kultur ekoizpenak komertzioetik kanpo egotearen beharra aldarrikatu gura dabe ekimen honekin, baita kolektibo txikiei lekua egin be].

Jorratu daigun azken perpausa progresino tematikoaren aldetik: zelan egiten dauan transizioa aurreko perpausagaz eta zelan progresetan dauan perpaus barruan. Perpaus biak gai edo tema bera partekatzen dabe (koherentzia tematikoa), baina batetik bestera transizio txarra dago, salto handiegia, progresino tematiko txarra. Izan be, argi dago, azken perpausak loturea edo kohesioa egiten dauala aurreko perpausagaz NOREKIN (*ekimen honekin*) sintagmearen bidez (berori lar urrun dagoala hasikeratik). Eroan daigun sekuentzia hori (*honegaz* ipinita, eta ez *honekin*) lehenengo lekura, burura:

- (4a) [(...), eta, zelan ez, irabazi asmorik bako ekoizleen lanak ikusgai egongo dira gaztetxe alboko karpan]. [EKIMEN HONEGAZ, kultur

ekoizpenak komertzioetik kanpo egotearen beharra aldarrikatu gura dabe, baita kolektibo txikiei lekua egin be.

Asko hobetu da progresino tematikoa, baina badago zer hobetu gehiago. Esaterako, aurrerago eroanda aditza (*aldarrikatu gura dabe*):

- (4c) Ekimen honegaz, **aldarrikatu gura dabe** kultur ekoizpenak komertzioetik kanpo egotearen beharra, baita kolektibo txikiei lekua egin be.

Apurka-apurka bagoaz gauzak artezten. Hirugarren arteztua, gramatikala egingo deusat (*egotearen* barik *egoteko*):

- (4d) Ekimen honegaz, aldarrikatu gura dabe kultur ekoizpenak komertzioetik kanpo egoTEKO beharra, baita kolektibo txikiei lekua egin be.

EgoTEKO horrek eskatzen du *egin* bihurtzeko *egiTEKO*:

- (4e) Ekimen honegaz, aldarrikatu gura dabe kultur ekoizpenak komertzioetik kanpo egoTEKO beharra, baita kolektibo txikiei lekua egiTEKO be.

Beste arteztu bat behar dau, oraingotan sakonagoa. Izan be, ZER osagarria

komertzioetik kanpo egoteko beharra

nahiz eta ez izan lar luzea (informazio gunea - *beharra*- atzen dauka), arindu leiteke, horretarako txertatuta aditza (*dago*) eta menderagailu kompletiboa (-*ela*):

- (4f) Ekimen honegaz, aldarrikatu gura dabe kultur ekoizpenak komertzioetik kanpo egoteko beharra DAGOALA, baita kolektibo txikiei lekua egin be.

Sartu ditudala aditza eta menderagailua batera (*dagoala*), komeni jaku beste orraztu bat emotea hobeto sekuentziatuko perpaus kompletiboa (*kultur ekoizpenak komertzioetik kanpo egoteko beharra dagoala*); izan be, informazio nagusia (aditza) eta menderagailua azken dagoz, eta penaztxu irakurten da (eroan daigun aurrera “*beharra dagoala*“ sekuentzia):

- (4g) Ekimen honegaz, aldarrikatu gura dabe kultur ekoizpenak **beharra dagoala** komertzioetik kanpo egoteko, baita kolektibo txikiei lekua egiteko be.

Arindu itzela hartu dau perpausak, baina beste orraztutxu baten beharrean dago. Hor badago sintagma bat, “kultur ekoizpenak“, hobeto dagoala, progresino tematikoaren aldetik, atzerago:

- (4h) Ekimen honegaz, aldarrikatu gura dabe beharra dagoala **kultur ekoizpenak** komertzioetik kanpo egoteko, baita kolektibo txikiei lekua egiteko be.

Aldaera horretan bertan be, ez litzateke alde handirik egongo lekuaz trukauz gero sintagma bi (“kultur ekoizpenak” eta “komertzioetik kanpo”). Azken partea geratzen jat. Egin daigun azken orrazketea, informazio bat, “kolektibo txikiei”, ipinirik atzenengo lekuan:

- (4i) Ekimen honegaz, aldarrikatu gura dabe beharra dagoala kultur ekoizpenak komertzioetik kanpo egoteko, baita lekua egiteko be **kolektibo txikiei**.

Amaitzeko (komenigarriagotzat jota *honegaz* barik *horregaz* erabiltea), ikusi eta alderatu daiguzan jatorrizko testutua eta aldaeratariko bat:

Jatorrizkoa

Azoka Alternatiboaren IX. edizinoa ospatuko da aurtan Durangoko Sapuetxe gaztetxean. Azokak iraungo dauen egunetan aurkezpen eta kontzertuz beteriko egitaraua izango da bertan, eta, zelan ez, irabazi asmorik bako ekoizleen lanak ikusgai egongo dira gaztetxe alboko karpan. Kultur ekoizpenak komertzioetik kanpo egotearen beharra aldarrikatu gura dabe ekimen honekin, baita kolektibo txikiei lekua egin be.

Aldaeratariko bat

Azoka Alternatiboak IX. edizinoa ospatuko dau aurtan Durangon, Sapuetxe gaztetxean. Azokak iraun bitartean, egitaraua egongo da aurkezpen eta kontzertuz beterik, eta, zelan ez, ikusgai egongo dira lanak, irabazi asmorik bako ekoizleak eginak, gaztetxe alboko karpan. Ekimen horregaz, aldarrikatu gura dabe beharra dagoala kultur ekoizpenak komertzioetik kanpo egoteko, baita lekua egiteko be kolektibo txikiei.

Irakurlea, gustuko ez badozu aldaera hori, badaukazuz beste batzuk aukeran, gorago garatuak. Pasa gaitzan bigarren testua jorraztera, berau paragrafo biz hornidua (tituluagaz gainera).

1.2. 2. testua

Antton Olanok irabazi dau Gasteiz Itzulpen Saria

Antton Olano Irurtiak irabazi dau aurtan Gasteizko Udalak gazteentzat itzulitako liburuen artean banatzen dauen Gasteiz Itzulpen Saria, *Bai baina ez baina bai* eleberriari esker. Pasqual Alapont valentziarrak katalanez idatzia da jatorrizkoa (*Fi de culs a Mallorca* izenburuaz) eta Elkar-ek argitaratu eban itzulpena 2007an, gazteentzako Taupadak bilduman. Saria 9.000 eurokoa da.

Olano 1963an jaio zan Eibarren, familia leitzarria dauen arren, eta Katalunian bizi da aspaldi honetan. Haur eta gazteentzako liburu ugariz ganera, Literatura Unibertsala bilduman hainbat obra euskaratu ditu, azkena Wilkie Collins-en *Ilargi-harria*.

Titulua ondo dagoala, hasi gaitzan lehenengo paragrafoetik, hasikera perpausetik:

- (1) Antton Olano Irurtiak irabazi dau aurtan Gasteizko Udalak gazteentzat itzulitako liburuen artean banatzen dauen Gasteiz Itzulpen Saria, *Bai baina ez baina bai* eleberriari esker

Jorraztu daigun zelako progresino tematikoa egiten dauen perpaus horrek bai tituluagaz bai perpaus bertan. Kontuan hartuta zer esaten dan tituluan, perpaus biok koherentzia tematikoa dauke, gai baten gainean dihardue-eta (*Gasteiz Itzulpen Saria*), baina hasikera perpausak progresino tematiko txarra dauka, ez dago egoki sekuentziatuta, eta ez da ondo ulertzen zer esan gura dauan sekuentzia batek:

- (a) Gasteizko Udalak gazteentzat itzulitako liburuen artean banatzen dauen Gasteiz Itzulpen Saria

Lauso dago erlatiboa dala-eta (*Gasteizko Udalak gazteentzat itzulitako liburuen artean banatzen dauen*), bai niretzat eta bai beste kontsultau batzuentzat be. Baina kontuan hartuta albiste aztergaia zer egunetan kaleratu zan, egun haretako Berria-ra jo dot, eta hona hemen zer dakarren:

- Antton Olanok irabazi du Gasteizko Udalak antolatutako Gasteiz Itzulpen Saria, gazte literaturako itzulpenei bideratua.

Pasarte hori ulergarri dago, eta hori kontuan harturik, pentsetan dot idazleak honan (baltzez adiarazoa) emon nahi izan ebala pasarte iluna (a) (hasikera perpausaren barruan sartuta):

- (1) Antton Olano Irurtiak irabazi dau aurtan Gasteizko Udalak **gazteentzat itzulitako libururik onenari emoten deutson** Gasteiz Itzulpen Saria, *Bai baina ez baina bai* eleberriari esker

Ikusten danez, *banatzen dauen* barik ipini dot *emoten deutso*, eta *liburuen artean* barik *libururik onenari*. Baina halan eta be hasikera perpaus horrek segitzen dau txarra dauala progresino tematikoa, erdipurdikoa jarraikortasun semantikoa, eta horrexegaitik irakurten da nekagarri perpaus osoa. Ondo erreparauz gero (1)i, kargutuko gara oinarrizko perpaustzat daukala titulua bera:

- Antton Olano Irurtiak irabazi dau Gasteiz Itzulpen Saria

Eta horri informazio bi gaineratu jakoz:

- aurtan Gasteizko Udalak gazteentzat itzulitako libururik onenari emoten deutson
- *Bai baina ez baina bai* eleberriari esker

Bigarren informazioa azkenengo lekuan dago kokatuta, eta horrek ez dau eragiten penaz irakurtea. Nekez irakurri eragin, lehenengo informazioak eragiten dau (beroni kenduta *aurten* elementua):

- Gasteizko Udalak gazteentzat itzulitako libururik onenari emoten deutson

Informazino hori atzerakarga mandoa da, alperreko osagarria, desegoki dago-eta gaineratuta izen propio bati (*Gasteiz Itzulpen Saria*). Ikusi daigun zergaitik dagoan alperrik dagoan lekuan, izan propio baten aurrean eta zergaitik beragaitik irakurten dan penaz perpausa. (Inork gura badau informazino gehiago holako kasuen gainean, ikusi begi *Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (I), 10. unitatea* Kaltzakorta, 2007). Ipin daigun ostera be hasikera perpausa (1), kenduta atzen informazinoa (*Bai baina ez baina bai* eleberriari esker):

- (b) Antton Olano Irurtiak irabazi dau aurten **Gasteizko Udalak gazteentzat itzulitako libururik onenari emoten deutson** Gasteiz Itzulpen Saria

Baltzez dagoanari esaten jako atzerakargea, dagoan lekuan dagoalako: izen propioaren (*Gasteiz Itzulpen Saria*) aurrean. Azken aldaerea (b) hasten bagara irakurten hasikeratik, normal irakurriko dogu baltzezko informazinora heldu arte, baina behin hasita irakurten baltzezko txatal luzanga hori, konturatzen gara aurrera egin ahala, batetik, ez daukala ezelako loturarik aurreko informazinoagaz eta, bestetik, ez dogula topetan zeri lotu informazino lukainka hori, harik eta irakurri arte *Gasteiz Itzulpen Saria*, eta orduantxe kargutu baltzezko infomazinoa erlazonauta dagoala azken informazinoagaz, haren menpekoea da-eta (Horra zer dan progresino tematiko erdipurdikoa).

Zelan pertsona batek, ez dagoalarik urez ondo horniduta, zeharkatu gura badau Sahara basamortua, ibiliko dan eztarria urratuta egarriaren egarriz noiz agertuko ur putzuren bat ura edateko, halantxe ibiliko da irakurlea be sartzen danean (a)ko baltzeko informazinoan, arnas hestuka irakurten noiz agertuko informazino guneren bat arnasa hartzeko eta beragaz erlazonetako baltzezko informazinoa (Horra hor zer eragiten dauan atzerakargeak edo alperreko osagarriak, batez be lar luzea bada).

Gura badogu errez, natural eta berez irakurri perpaus bat edo testu bat, ikasi behar dogu perpausetako edo testuetako osagaiak ondo sekuentzietan, egoki eratzen, ezelako salto barik. Berbarako, irakurlea, ez erabili izen propio baten aurrean edo edozein osagai identifikaturen aurrean, ezelako osagarririk, alperrik dago-eta kokaleku horretan, atzekargea eragiten dau-eta; osterantzean esateko, progresino tematiko txarra (eta horrek dakar nekez eta penaz irakurtea).

Gure hasikera perpausa nahi badogu normal-normal irakurri, ikusi dogunez, derrigor erabili behar dogu perpausa ondorengo ordena honetan (ez dogu ahaztu behar perpaus honetan kendu egin dodala azken informazinoa -*Bai baina ez baina bai* eleberriari esker -, zeina geroago txertatuko dodan):

- (1a) Antton Olano Irurtiak irabazi dau aurten Gasteiz Itzulpen Saria [erlatibodun informazinoa]

Badakigu, irakurri gura badogu errez-errez, non joan behar dauan erlatibo bidezko informazinoak (kortxete artean): izen propinaren (*Gasteiz Itzulpen Saria*) ostean. Orain geratzen jaku jakitea zer formato emon behar jakon erlatibodun informazino horri. Lehenengo begiratuan emoten dau erabili behar dala erlatibo apositiba deritxana (-ena), koma artean erabili be:

- (1b) Antton Olano Irurtiak irabazi dau aurten Gasteiz Itzulpen Saria, [Gasteizko Udalak gazteentzat itzulitako libururik onenari emoten deutsonA],

Proposamen hori jatorrizkoa baino askoz errezago irakurten da. Badago bigarren baliabide bat be, idazle klasikoak erabilia, zeinismoa deritxana (zein -en/bait-) (ikusi <<Zein (...) bait-/n>> *egitura*, Alberdi, X.; Garcia, J. in I. Zabala (koord.), 1996):

- (1c) -Antton Olano Irurtiak irabazi dau aurten Gasteiz Itzulpen Saria, [ZEINA Gasteizko Udalak gazteentzat itzulitako libururik onenari emoten deutsonN],
- (1d) -Antton Olano Irurtiak irabazi dau aurten Gasteiz Itzulpen Saria, [ZEINA Gasteizko Udalak emoten deutsonN gazteentzat itzulitako libururik onenari],

Bigarren aldaera horretan aurreratu egin dogu zeinismoaren bigarren parte (-en) eta aditza (*dau*), idazle klasikoak egiten eben moduan, eta holan errezago irakurten da perpausa. Zer aldaketa egin dogun (1c)tik (1d)ra, haxe egin behar dogu (1b)tik hurrengo aldaera honetara (1e), hau da, aurreratu erlatibo apositiba (-ena) eta aditza (*deutso*):

- (1e) Antton Olano Irurtiak irabazi dau aurten Gasteiz Itzulpen Saria, [Gasteizko Udalak emoten deutsonA gazteentzat itzulitako libururik onenari],

Badago hirugarren baliabide bat, *eta* juntagailua (eta gura izanez gero, lagun dauala *berau* erakuslea edo besteren bat):

- (1e) Antton Olano Irurtiak irabazi dau aurten Gasteiz Itzulpen Saria, [ETA (berau) Gasteizko Udalak emoten deutso gazteentzat itzulitako libururik onenari],

Lehenengo perpaus honetan, gorago ikusi dogunez, albo batera laga dot informazino bat (*Bai baina ez baina bai* eleberriari esker), eta orain hona dakart:

- (1i) Antton Olano Irurtiak irabazi dau aurten Gasteiz Itzulpen Saria, [eta (berau) Gasteizko Udalak emoten deutso gazteentzat itzulitako libururik onenari], ***Bai baina ez baina bai eleberriari esker.***

Informazio barri horrek, azkenengo lekuan txertatuta dagoala, galarazo egiten dau, nire ustez, normal-normal irakurtea perpau osoa. Proposatzen dot, komunikagarriago egiteko perpaua, hitz-kate hori aurrera eroatea:

- (1j) Antton Olano Irurtiak, **Bai baina ez baina bai eleberriari esker**, irabazi dau aurten Gasteiz Itzulpen Saria, eta (berau) Gasteizko Udalak emoten deutso gazteentzat itzulitako libururik onenari.

Badakit informazio aldetik garrantzitsuago dala ZER osagarria (*Gasteiz Itzulpen Saria, (berau) Gasteizko Udalak emona gazteentzat itzulitako libururik onenari*) ZERI ESKER baino (*Bai baina ez baina bai eleberriari esker*), baina ZER sano luzea danez, komeni da azkenen erabiltea (oker ez banago beste horrenbeste gertatzen da hizkuntza guztietan-edo).

Ez dakit itzulpen-sari horretara aurkeztu leitekezan edozelako liburu itzuliak (eleberria, ipuinak, saioak...). Halan bada, orraztutxu bat egingo neuskio “*Bai baina ez baina bai eleberriari esker*” informazioari, zatitxo bat aurreraturik, *eleberri bati esker (bat gaineratu jako eta -a kendu)*:

- (1k) Antton Olano Irurtiak, **eleberri BATi esker**, *Bai baina ez baina bai* izenekoa, irabazi dau aurten Gasteiz Itzulpen Saria, eta (berau) Gasteizko Udalak emoten deutso gazteentzat itzulitako libururik onenari.

Nor edo nor eskandalizau leiteke perpau horretan ikusita aditz aurrean, galdegai-lekuan, tartekia (**eleberri bati esker**, *Bai baina ez baina bai* izenekoa). Arrunt-arrunt erabilten da holan ahoz zein idatziz (ez, zoritxarrez, gehienen euskera batuan). Inork nahi badau, aditz aurrean erabili leike *aurten* berbea:

- (1l) Antton Olano Irurtiak, **eleberri bati esker**, *Bai baina ez baina bai* izenekoa, **aurten** irabazi dau Gasteiz Itzulpen Saria, eta (berau) Gasteizko Udalak emoten deutso gazteentzat itzulitako libururik onenari.

Azkenengo aldaeretan beti erabili izan dot baliabide bat bera (*eta* juntagailua). Baina badakit erlatibo apositiboa eta zeinismoa ere erabili leitekezala:

Zeinismoa

- (1m) Antton Olano Irurtiak, **eleberri bati esker**, *Bai baina ez baina bai* izenekoa, aurten irabazi dau Gasteiz Itzulpen Saria, ZEINA Gasteizko Udalak emoten deutsoN gazteentzat itzulitako libururik onena.

Erlatibo apositiboa

- (1n) Antton Olano Irurtiak, **eleberri bati esker**, *Bai baina ez baina bai* izenekoa, aurten irabazi dau Gasteiz Itzulpen Saria, Gasteizko Udalak emoten deutsonA gazteentzat itzulitako libururik onenari.

Orain arte hiru baliabide erabili ditugu, baina zein dogu guren edo nahien? Eta zergaitik? Alderatu daiguzan hiru baliabideok:

- (...) Gasteiz Itzulpen Saria, ETA (berau) Gasteizko Udalak emoten deutso gazteentzat itzulitako libururik onenari.
- (...) Gasteiz Itzulpen Saria, ZEINA Gasteizko Udalak emoten deutsoN gazteentzat itzulitako libururik onenari.
- (...) Gasteiz Itzulpen Saria, Gasteizko Udalak emoten deutsoNA gazteentzat itzulitako libururik onenari.

Hiru baliabideotan, gustuak gustu, eraginkorrenzat jo beharko litzateke -komunikagarritasunaren aldetik- zeinek iragarten dauan lehenen-argien zer egitura mota datorren, haxe. Goiko hiru adibideok ikusita, okerrera emoten dau erlatiboa apositiboa dala (-ena), ez dakigu-eta azken-azkeneraino zelako perpau motan dagoan erabilia. Onena, zeinismoa dala (zein -en/bait-) emoten dau. Edozein modutan be, alde txikia dago goiko adibide horietan baliabide bat edo beste erabili. Beste batzuetan, oster, itzel handia dago, eta orduan ez da komeni erabiltea erlatibo apositiboa (-ena).

Orain arte aldaera guztietan hitz-kate bat dago luzetxoa (*gazteentzat itzulitako libururik onenari*), eta behar dau orraztu on bat progresino tematiko egokia emoteko. Izan be, *liburua* dala informazio gunea, ezkerretara daukaz osagai bi beharizanik barik:

- gazteentzat itzulitako

Ikusi daiguzan elementu biok sekuentzia handiagoan, goiko aldaeratariko batean, zeinismoa darabilenean:

- (...) Gasteiz Itzulpen Saria, zeina Gasteizko Udalak emoten dauan **gazteentzat itzulitako** libururik onenari.

Argi dago baltzeko kargatxu hori irutsi egin bear dauala irakurleak eta buruan gorde ahalik eta *libururik onenari* informazioa irakurri arte, eta orduantxe konturatu berorregaz dagoala erlazonauta. Atzerakargea txikia da, eta ez dauka hainbesteko garrantzirik, baina gura izanez gero, konpondu leiteke atzera botata. Egin daigun pausorik pauso. Hasteko, *itzulitako* bihurtu daigun *itzuli*:

- (...) Gasteiz Itzulpen Saria, zeina Gasteizko Udalak emoten dauan **gazteentzat** liburu **itzulirik** onenari.

Holan jokatuta, aditza adjektibo erabilia, adibide asko daukaguz eguneroko berbetan:

- Emoidazuz lau txorizo *erre*
- Egunero txorizo *egosiren* bat jaten dot

Barrero oraturik aztergaiari:

- (...) Gasteiz Itzulpen Saria, zeina Gasteizko Udalak emoten dauan **gazteentzat** liburu **itzulirik** onenari.

Atzerakargatxu bat, baltzez adierazoa (*gazteentzat*), geratzen zaigu atzen-atzenera eroateko (lagun dauala *idatzia* edo *sortuak*):

- (...) Gasteiz Itzulpen Saria, zeina Gasteizko Udalak emoten dauan liburu itzulirik onenari gazteentzat (idatziAK/sortuAK).

Pasa gaitezkan bigarren perpausera, zeina aurrekoagaz erlazionau behar dan jakiteko zelako progresino tematikoa daukan (gai beraren gainean dihardue; koherentzia tematikoa dauke). Perpaus biak ipiniko ditut alkarren segidan:

- (2) [Antton Olano Irurtiak irabazi dau aurten Gasteizko Udalak gazteentzat itzulitako liburuen artean banatzen dauen Gasteiz Itzulpen Saria, *Bai baina ez baina bai* eleberritari esker] [Pasqual Alapont valentziarrak katalanez idatzia da jatorrizkoa (*Fi de culs a Mallorca* izenburuaz) eta Elkar-ek argitaratu eban itzulpena 2007an, gazteentzako Taupadak bilduman].

Bigarren perpausak ez dauka progresino tematiko egokia aurrekoari buruz, salto handia dago lehenengo perpausetik bigarrenera. Izan be, harik eta *da* aditz laguntzailea agertu arte, eta gero *jatorrizkoa* berbea, irunsi egin behar da aurreko informazioa, eta buruan gorde:

- Pasqual Alapont valentziarrak katalanez idatzia

Beraz, “*da* jatorrizkoa” informazioak emoten deutesonez jarraipena lehenengo perpausari, ipini daigun, lehenengo, “*jatorrizkoa*” informazioa (baltzez); eta, ostean, gainerakoa:

- (2a) **Jatorrizkoa** (*Fi de culs a Mallorca* izenburuaz) katalanez idatzia da Pasqual Alapont valentziarrak eta Elkar-ek argitaratu eban itzulpena 2007an, gazteentzako Taupadak bilduman.
- (2b) **Jatorrizkoa** (*Fi de culs a Mallorca* izenburuaz) idatzia da katalanez Pasqual Alapont valentziarrak eta Elkar-ek argitaratu eban itzulpena 2007an, gazteentzako Taupadak bilduman.

Lotura ona egiteko aurreko perpausagaz, aurreratu dot aurreratu beharrezkoa, baina aldaera batean (2a) zein bestean (2b) arraro egiten jat subjektua (*Pasqual Alapont valentziarrak*) aditz ostean. Ez dot uste onargarria danik, eta beste estrategia bat proposatuko dot:

- (2c) Jatorrizkoa (*Fi de culs a Mallorca* izenburuaz) katalanez idatzia da, Pasqual Alapont valentziarrak **idatzia be**, eta Elkar-ek

argitaratu eban itzulpena 2007an, gazteentzako Taupadak bilduman.

- (2d) Jatorrizkoa (*Fi de culs a Mallorca* izenburuaz) idatzia da katalanez, Pasqual Alapont valentziarrak **idatzia be**, eta Elkar-ek argitaratu eban itzulpena 2007an, gazteentzako Taupadak bilduman.

Orain ikusten dot leku egokian dagoala subjektua, ondoren daukala *idatzia be*. Beste era batera be topau ahal jako urtenbidea (*da* aditza barik *du* erabilia), abiauta (2a) eta (2b)tik:

- (2e) Jatorrizkoa (*Fi de culs a Mallorca* izenburuaz) katalanez idatzia DU Pasqual Alapont valentziarrak, eta Elkar-ek argitaratu eban itzulpena 2007an, gazteentzako Taupadak bilduman.
- (2f) Jatorrizkoa (*Fi de culs a Mallorca* izenburuaz) idatzia DU katalanez Pasqual Alapont valentziarrak, eta Elkar-ek argitaratu eban itzulpena 2007an, gazteentzako Taupadak bilduman.

Beste aditz aldaketa bat be egin leiteke, *du* barik *dago* erabilia (eta beste orraztu batzuk eginda):

- (2j) Jatorrizkoa (*Fi de culs a Mallorca* izenburuaz) katalanez DAGO, Pasqual Alapont valentziarrak idatzia, eta Elkar-ek argitaratu eban itzulpena 2007an, gazteentzako Taupadak bilduman.

Nire ustez, progresino tematiko ona egiteko, *katalanez* osagarria hobeto dago ondoren daukala “(*Fi de culs a Mallorca* izenburuaz)” osagarria:

- (2h) Jatorrizkoa **katalanez** (*Fi de culs a Mallorca* izenburuaz) dago, Pasqual Alapont valentziarrak idatzia, eta Elkar-ek argitaratu eban itzulpena 2007an, gazteentzako Taupadak bilduman.
- (2i) Jatorrizkoa katalanez **dago** (*Fi de culs a Mallorca* izenburuaz), Pasqual Alapont valentziarrak idatzia, eta Elkar-ek argitaratu eban itzulpena 2007an, gazteentzako Taupadak bilduman.

Beharbada, honako hau dago ondoen erabilia progresino tematikoaren aldetik:

- (2j) Jatorrizkoa **katalanez** (*Fi de culs a Mallorca* izenburuaz) idatzia DU Pasqual Alapont valentziarrak, eta Elkar-ek argitaratu eban itzulpena 2007an, gazteentzako Taupadak bilduman.

Eta hurrengoa be ez dago albora izteko:

- (2k) Jatorrizkoa **Pasqual Alapont valentziarrak** dago idatzi(t)a **katalanez** (*Fi de culs a Mallorca* izenburuaz), eta Elkar-ek argitaratu eban itzulpena 2007an, gazteentzako Taupadak bilduman.

Bigarren perpaus honegaz amaitzeko, beronen azken aldian dago

- , gazteentzako Taupadak bilduman.

Errez irakurten da, ezin errezago, baina mamurtuago emon leiteke hitz-katea. Izan be, ahal izanez gero, gomendatzen dot, normalean, ez erabilteko osagarririk (*gazteentzako*) izen propio baten aurrean diskurtsoan, alperrik dago-eta, atzerakarga egiten dau-eta. Eroan daigun atzera zamatu hori, izen propioaren ostera:

- , Taupadak bilduman gazteentzako eginA/sortuA/idatziA

Agirian dagoanez, osagarritxuari gaineratu deusat *egina/sortua/idatzia*. Bestalde, *gazteentzako* barik erabili leiteke *gazteentzat* edo *gazteendako*.

Ezer ez daukadanez hirugarren perpausaren kontra, igaro gaitezkan bigarren paragrafora:

- Olano 1963an jaio zan Eibarren, familia leitzarria dauen arren, eta Katalunian bizi da aspaldi honetan. Haur eta gazteentzako liburu ugariz ganera, Literatura Unibertsala bilduman hainbat obra euskaratu ditu, azkena Wilkie Collins-en *Ilargi-harria*.

Lehenengo perpausa ondo dago eta errez irakurten da. Inork nahi badau mamurtuago, adierazo leike perpaus kontsesiboa beste era batera, *arren* semaforoa edo menderagailua barik erabilita *nahiz eta*:

- (1a) Olano 1963an jaio zan Eibarren, NAHIZ ETA familia leitzarria dauen, eta Katalunian bizi da aspaldi honetan.
- (1b) Olano 1963an jaio zan Eibarren, NAHIZ ETA familia leitzarria IZAN/EDUKI, eta Katalunian bizi da aspaldi honetan

Pasaturik bigarren perpausera (aurrean ipiniko deusat aurreko perpausa):

- (2a) [Olano 1963an jaio zan Eibarren, familia leitzarria dauen arren, eta Katalunian bizi da aspaldi honetan] [Haur eta gazteentzako liburu ugariz ganera, Literatura Unibertsala bilduman hainbat obra euskaratu ditu, azkena Wilkie Collins-en *Ilargi-harria*.]

Lehenengo perpausetik bigarrenera salto informatibo mandoa dago, progresino tematiko lar txarra. Bigarren perpaus horretan zein elementuk egiten dau loturea lehenengoagaz? Lotura agirikoa behintzat, *ditu* aditz laguntzaileak (horrek esan gura dau irakurleak buruan gorde behar daua tarteko informazio luzangea -*Haur eta gazteentzako liburu ugariz ganera, Literatura Unibertsala bilduman hainbat obra euskaratu*-). Beraz, gura badogu progresino tematiko ona egin perpaus bien artean, aurrerengo ipini behar dogu “euskaratu ditu”:

- (2b) [**Euskaratu ditu** haur eta gazteentzako liburu ugariz ganera, Literatura Unibertsala

bilduman hainbat obra, azkena Wilkie Collins-en *Ilargi-harria*.]

Badagoz ados ez dagozanak aditez hasi behar dala perpausa, baina holako adibideak bazterrak dagoz ahoz eta idatziz tradizioan. Bestalde, nire ustez, perpausak ez dauka progresino tematiko egokiegia barnean, hobeto sekuentziau beharra dagoz osagaiak (aldaketak baltzez eta maiuskulaz adierazo ditut):

- (2c) [Euskaratu ditu **liburu ugari** haur eta gazteentzako; ETA, HORRETAZ ganera, **hainbat obra** Literatura Unibertsala bilduman, azkena Wilkie Collins-en *Ilargi-harria*.]

Ez dot erreparorik *liburu ugari* osagarria jarteko aditz aurrean:

- (2d) [**Liburu ugari** euskaratu ditu haur eta gazteentzako; eta, horretaz ganera, hainbat obra Literatura Unibertsala bilduman, azkena Wilkie Collins-en *Ilargi-harria*.]

Beste era batera be esan leiteke gauza bera (kendu daigun “eta, horretaz, ganera”, eta ipini “baita...ere”):

- (2e) Liburu ugari euskaratu ditu haur eta gazteentzat, BAITA hainbat obra ERE Literatura Unibertsala bilduman, azkena Wilkie Collins-en *Ilargi-harria*.

Zalantzea sortu jat jatorrizko testuaren interpretazioan: ez ete dan liburu guztiak euskaratu barik, batzuk *idatzi* egin dituala, eta beste batzuk euskaratu. Honan:

- liburu ugari IDATZI DAU haur eta gazteentzat
- hainbat obra euskaratu ditu Literatura Unibertsala Bilduman

Holan bada, honan (modu bitan) geratzen da perpausa:

- (2f) [Liburu ugari IDATZI DAU haur eta gazteentzako; eta, horretaz ganera, hainbat obra EUSKARATU (DITU) Literatura Unibertsala bilduman, azkena Wilkie Collins-en *Ilargi-harria*.]
- (2j) Liburu ugari IDATZI DAU haur eta gazteentzat, **baita** hainbat obra EUSKARATU ere Literatura Unibertsala bilduman, azkena Wilkie Collins-en *Ilargi-harria*.

Lehenengo aukera (2f), hobeto dago *ditu* aditz laguntzailea barik, beharizanik ez dauka-eta perpausak. Amaitzeko, nik “azkena Wilkie Collins-en *Ilargi-harria*” barik gurago dot, inork gura badau erabili, honako hau:

- , azkena *Ilargi-harria*, Wilkie Collins-EK IDATZIA.

Operazio horren arrazoa gorago emon dot: ez erabili, normalean, alperrik ezelako osagarririk izen propio baten aurrean. Gainera, gatzelaniaz estilo

nominala (DE bidez) dago erabilia, eta euskerea gehien-gehien-gehienetan hobeto egokitzen da estilo berbalean (nire proposamenean lehenengo jarri dot informazio nagusia (gaztelaniaz legez) *-Ilargi-harria-* eta ostean informazio sekundarioa, osagarria (erderazkoaren moduan) *-Wilkie Collins-ek idatzia-*.

Akaboa emon deusatsat testu osoa aztertzeari, baina beste arteztu bat egin nahi neuke. Testuaren lehenengo perpausean, esan dot, erlatibodun sekuentzia bat dagoala lauso, ez dala zehatz ulertzen:

- Gasteizko Udalak gazteentzat itzulitako liburuen artean banatzen dauen Gasteiz Itzulpen Saria

Eta argitzeko, jo dot Berria egunkarira, eta bertan informazio hori honan dago emonda:

- (Antton Olanok irabazi du) Gasteizko Udalak antolatutako Gasteiz Itzulpen Saria, gazte literaturako itzulpeni bideratua.

Eskerrak horri arteztu dot jatorrizkoa (testu honen hasikeran). Baina orain Berria-koa bera arteztu gura neuke. Erreparau Berria-ko perpausean izen propioak (*Gasteiz Itzulpen Saria*) eskumatara daukala osagarri bat (*gazte literaturako itzulpeni bideratua*) eta ezkerretara beste bat (*Gasteizko Udalak antolatutako*) atzerakarga egiten. Badakigu ezkerreko osagarria eskumatara pasa behar dala. Hona hemen modu bat zelan egin:

- (Antton Olanok irabazi du) Gasteiz Itzulpen Saria, Gasteizko Udalak antolatuta ETA gazte literaturako itzulpeni bideratua.

Ikusten dogenez, *antolatutako* bihurtu dot *antolatuta*, eta *eta* juntagailua txertatu dot osagarri bien artean. Askoz hobeto, baina ez, ezin hobeto; izan be, bigarren osagaiak azkenengo lekuan dauka aditza (*bideratua*). Zer egin aurrerago eroateko? Hona hemen urtenbideak baliabideka:

Zeinismoaren bidez

- (Antton Olanok irabazi du) Gasteiz Itzulpen Saria, ZEINA Gasteizko Udalak antolatuta DAGOAN ETA bideratua DAGOAN gazte literaturako itzulpeni.
- (Antton Olanok irabazi du) Gasteiz Itzulpen Saria, zeina Gasteizko Udalak antolatu(t)a dagoan eta bideratu(t)a gazte literaturako itzulpeni.
- (Antton Olanok irabazi du) Gasteiz Itzulpen Saria, zeina dagoan Gasteizko Udalak antolatu(t)a, eta bideratu(t)a gazte literaturako itzulpeni.

Beronismoaren bidez

- (Antton Olanok irabazi du) Gasteiz Itzulpen Saria, BERAU Gasteizko Udalak antolatuta, eta bideratua gazte literaturako itzulpeni.

Eta juntagailuaren bidez

- (Antton Olanok irabazi du) Gasteiz Itzulpen Saria, ETA berau Gasteizko Udalak DAGO antolatuta, eta bideratu(t)a gazte literaturako itzulpeni.

Amaitzeko, hona hemen konparagarri jatorrizko testutxua eta aldaeratariko bat.

Jatorrizkoa

Antton Olanok irabazi dau Gasteiz Itzulpen Saria

Antton Olano Irurtiak irabazi dau aurten Gasteizko Udalak gazteentzat itzulitako liburuen artean banatzen dauen Gasteiz Itzulpen Saria, *Bai baina ez baina bai* eleberriari esker. Pasqual Alapont valentziarrak katalanez idatzia da jatorrizkoa (*Fi de culs a Mallorca* izenburuaz) eta Elkar-ek argitaratu eban itzulpena 2007an, gazteentzako Taupadak bilduman. Saria 9.000 eurokoa da.

Olano 1963an jaio zan Eibarren, familia leitzarra dauen arren, eta Katalunian bizi da aspaldi honetan. Haur eta gazteentzako liburu ugariz ganera, Literatura Unibertsala bilduman hainbat obra euskaratu ditu, azkena Wilkie Collins-en *Ilargi-harria*.

Aldaeratarikoa

Antton Olanok irabazi dau Gasteiz Itzulpen Saria

Antton Olano Irurtiak, *Bai baina ez baina bai* eleberriari esker, aurten irabazi dau Gasteiz Itzulpen Saria, eta berau Gasteizko Udalak emoten deutso liburu itzulirik onenari gazteentzat. Jatorrizkoa Pasqual Alapont valentziarrak idatzia da(go) katalanez (*Fi de culs a Mallorca* izenburuaz), eta Elkar-ek argitaratu eban itzulpena 2007an, Taupadak bilduman gazteentzat (idatzia). Saria 9.000 eurokoa da.

Olano 1963an jaio zan Eibarren, nahiz eta familia leitzarra dauen, eta Katalunian bizi da aspaldi honetan. Liburu ugari idatzi dau, haur eta gazteentzat, eta horretaz ganera, hainbat obra euskaratu (ditu) Literatura Unibertsala bilduman, azkena *Ilargi-harria*, Wilkie Collins-ek idatzia

Inor ez badago ados aldaera horregaz, badauka beste aukera batzuk garapenean. Jorratu daigun azkenengo testua, berau perpaus bakarrez osatua eta luzea be luzea.

1.3. 3. testua

Ezagutzen dot Valladolid aldeko nekazarien erdera entzuten adurra dariola egoten den eta Andaluzian bertako abestiekin barrua gozotasunez betetan jakon eta joaten den tokiko hizkuntza eta izateko era ikasten eta erabiltzen ahalegintzen den euskaltzale sutsua

Ikusten dogunez, testuak perpaus bakarra dauka eta titulurik ez. Hasteko, egin daigun perpaus luzanga horren eskema (ustez egokiena nik azalpenak emoteko):

- Ezagutzen dut NOR

NOR osagarri hori galdegaia da. Altuberen legea errespetauz gero (galdegaia aditz aurrean erabili behar da, aditzari inkau-inkauta), gaur egin ohi danez, NOR hori aditz aurrean erabili beharko genduke:

- NOR ezagutzen dot
- [Valladolid aldeko nekazarien erdera entzuten adurra dariola egoten den eta Andaluzian bertako abestiekin barrua gozotasunez betetan jakon eta joaten den tokiko hizkuntza eta izateko era ikasten eta erabiltzen ahalegintzen den euskaltzale sutsua] ezagutzen dot

Lehen negargarri; orain errukigarri. Badakigu zer ez dogun egin behar: erabili galdegai lar luze dontsu hori aditz aurrean galdegaitzat. Kargutu gaitezan NOR hori ezin lukainkeagoa dala, lar be lar luzea:

- [Valladolid aldeko nekazarien erdera entzuten adurra dariola egoten den eta Andaluzian bertako abestiekin barrua gozotasunez betetan jakon eta joaten den tokiko hizkuntza eta izateko era ikasten eta erabiltzen ahalegintzen den euskaltzale sutsua].

Kortxete barruko informazio hori atzekoz aurrera dago taxututa, azkenengo dauala informazio gunea (*euskaltzale sutsua*) eta aurretik hiru osagarriak (hirurak erlatiboak). Hona eskema:

Osag1 + Osag2 + Osag3 +
GUNEA(euskaltzale) +
adjektiboa(sutsua)

Lehenengo hiru osagarriok honako hiru erlatiboak dira:

- Osag1:
 - Valladolid aldeko nekazarien erdera entzuten adurra dariola egoten den
- Osag2:
 - Andaluzian bertako abestiekin barrua gozotasunez betetan jakon

- Osag3:
 - joaten den tokiko hizkuntza eta izateko era ikasten eta erabiltzen ahalegintzen den

Gura badogu NOR sintagma hori komunikagarriro erabili (progresino tematiko hobean), errez irakurteko, ezinbestean emon behar dogu informazioa ordena logikoan, informazio gunearen atzean ipinita hiru osagarriok:

GUNEA(euskaltzale) +
adjektiboa(sutsua) + Osag1 + Osag2 +
Osag3

Eskema hori honako ordena honetan (hurrenkera logikoa) erabili beharko litzateke, komunikagarria izan dadin:

Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat
[Osag1 + Osag2 + Osag3]

Aztertu daigun hasikera sekuentzia hori (*Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat*) eta lehenengo osagarria (Osag1):

- Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat Valladolid aldeko nekazarien erdera entzuten adurra dariola egoten denA

Lehenago erlatibo menderagailua zana (-en) bihurtu da erlatibo apositiboa (-ena). Osagarri horretan informazioa ez dago egoki sekuentziauta, progresino tematiko hobea behar dau, irakurriko badogu errezago, naturalago:

- (1) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat adurra dariola egoten denA entzuten Valladolid aldeko nekazarien erdera

Ikusten dogunez, aurrera eroan dogu oinarritzko informazioa (*adurra dariola egoten denA*) eta atzera bota gainerakoa. Erlatibo apositiboaren ordez beste estrategia bat be erabili leiteke, zeinismoa (*zein - en/bait-*) deritxana, berau idazle klasikoak erabilia:

- (2) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, ZEINA adurra dariola egoten denN entzuten Valladolid aldeko nekazarien erdera
- Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, ZEINA adurra dariola egoten BAITa entzuten Valladolid aldeko nekazarien erdera

Baliabide bioz gainera (erlatiboa apositiboa eta zeinismoa) badago hirugarren bat, asko be asko baliatua ahozko euskeran, *eta* juntagailua (lagun dauala *bera(u)* erakuslea). Hona hemen zelan erabilten dan:

- 3) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, ETA BERA(U) adurra dariola egoten da entzuten Valladolid aldeko nekazarien erdera

Hiru baliabide erabili ditut (erlatibo apositiboa, zeinismoa eta juntagailua), baina oraindino emon ahal

jako orraztu bat azken informazioari “(egoten da) entzuten Valladolid aldeko nekazarien erdera”, inork erabili gura badau. Informazio horren azpian zehar-galderea dago. Kontu hau hobeto ulertzeko erderaz ipiniko dot informazioa:

- suele estar oyendo el castellano de los labradores de la parte de Valladolid

Horren azpian zehar-galderea dago elisituta (azkenengo aldaerea):

- suele estar oyendo el castellano QUE UTILIZAN los labradores de la parte de Valladolid
- suele estar oyendo CÓMO UTILIZAN el castellano los labradores de la parte de Valladolid

Erreparau, irakurlea, hurrengo informazio bioi, euskeraz eta erderaz:

- Valladolid aldeko nekazarien erdera
- el castellano de los labradores de la parte de Valladolid

Euskeraz sintagmeak atzenengo lekuan dauka informazio nagusia (*erdera*) eta aurretik informazio osagarriak (*nekazarien* eta *Valladolid aldeko*). Osterantzean esateko, atzekoz aurrera dauka informazioa, progresino tematiko txarrean emonda. Ostera, gaztelaniaz sintagman, lehenengo, informazio gunea dago (*el castellano*) eta, jarraian, osagarriak (*de los labradores* eta *de la parte de Valladolid*). Osterantzean esateko, ordena logikoan agertzen da informazioa, progresino tematiko egokia dauala.

Euskeraz be ordena logikoan emon behar dogu informazioa, progresino tematiko bikainean, baina horretarako, gaztelaniaz ez bestelako estrategia erabili behar dogu, *zehar-galderea* bidez (erlatibo apositiboaren aldaerea erabiliko dot (1)):

- (4) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat adurra dariola egoten denA entzuten ZELAN DARABILEN erdera Valladolid aldeko nekazariAK

Hobetu leiteke azken partea:

- (5) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat adurra dariola egoten dena entzuten zelan darabilen erdera nekazariAK Valladolid aldeAN

Orain, erreparau, irakurlea, lehenengo, emoten dala *erdera* (informazio gunea) eta, ostean, *nekazariak* eta *Valladolid aldean* (informazio sekundariak, osagarriak). Orain esan geinke erderaz besteko errez irakurten dala euskeraz. Ikusi dogunez, zehar-galderea erabili dot eta erlatibo apositiboa, baina erabili leitekez bai zeinismoa bai juntagailua be:

- (6) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, ZEINA adurra dariola egoten deN entzuten zelan darabilen erdera nekazariAK Valladolid aldeAN
- (7) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, ETA BERA adurra dariola egoten da entzuten zelan darabilen erdera nekazariAK Valladolid aldeAN

Jorratu dodalarik lehenengo osagarria (Osag1), erlatiboa, pasako naz bigarrena aztertzeraz:

- (8) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat Andaluzian bertako abestiekin barrua gozotasunez betetan jakonA

Erlatibo apositiboa (*-ena*) lar atzera dago, ez dauala ondo beteten semaforo funtzinoa (aditzen emon zelako egiturea edo perpausa datorren ondorik). Eroan daigun aurrerago aditza (*beteten da*) eta erlatibo apositiboa (*-ena*), biak batera:

- (9) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat barrua gozotasunez betetan jakonA Andaluzian bertako abestiekin.

Badaukaguz beste baliabide bi aurrerago ikusiak, zein baino zein egokiagoak (zeinismoa eta *eta* juntagailua):

Zeinismoaren bidez

- (10) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, ZEINARI barrua gozotasunez betetan jakonN Andaluzian bertako abestiekin.
- (11) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, ZEINARI barrua gozotasunez betetan BAITjako Andaluzian bertako abestiekin.

Eta juntagailuaren bidez

- (12) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, ETA (BERARI/BERAU) barrua gozotasunez betetan jako Andaluzian bertako abestiekin.

Uste dot, errezago irakurriko badogu, behar dogula *barrua* berbea aditz ostera eroan, aditzari berari inkautaz:

- (13) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, eta (berari/berori) gozotasunez betetan jako **barrua** Andaluzian bertako abestiekin.

Goazen hirugarren osagarrira (Osag3), hau be erlatibora, ea zelan konpontzen dogun. Erabili daigun erlatibo apositiboa (*-ena*):

- (14) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, joaten den tokiko hizkuntza eta izateko era ikasten eta erabiltzen ahalegintzen denA

Atzeregi dago erlatibo apositiboa (*-ena*) egoki beteteko semaforo egitekoa: iragarri zelako perpaus edo egitura mota datorren ostean. Eroan daigun aurrerago:

- (15) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, ikasten eta erabiltzen ahalegintzen denA joaten den tokiko hizkuntza eta izateko era

Erlatibo apositiboa, dagoan lekuan dagoala, ezin hobeto dago (ia semaforo perfektoa), eta horrexegaitik irakurten da errezago (14)a baino. Beste baliabide biak be aplikagarri jakoz perpausari:

Zeinismoaren bidez

- (16) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, ZEINA ahalegintzen deN ikasten eta erabiltzen joaten den tokiko hizkuntza eta izateko era
- (17) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, ZEINA ahalegintzen BAITa ikasten eta erabiltzen joaten den tokiko hizkuntza eta izateko era

Eta juntagailuaren bidez

- (18) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, ETA (BERA/BERORI) ahalegintzen da ikasten eta erabiltzen joaten den tokiko hizkuntza eta izateko era

Nik neuk orraztutxu bat emongo neuskio informazino zati bati aldaera guztietan:

- (...) ahalegintzen da ikasten eta erabiltzen joaten den tokiko hizkuntza eta izateko era

Ez dago txarto, baina ustez hobetu leiteke:

- (...), **doan tokira doala**, ahalegintzen da ikasten eta erabiltzen tokiko hizkuntza eta izateko era

Ahoz behinik behin, *tokiko* hori barik erabilten dogu *bertako* edo *hango*. Gura izanez gero, *izateko era* barik baliau leiteke, nire ustez jatorragoa, *iza(k)erea* edo *izatea*. Bestalde, *doan tokira doala* erabili leiteke aditz perifrastiko bidez:

- joaten dan tokira joaten dala

Eta oker ez banago baita subjuntibo bitartez be:

- joan dadin tokira joan dadila

Orraztutxu horreek integratu leitekez perpausuan, hiru baliabideak erabilia (zeinismoa, erlatibo apositiboa eta juntagailua):

- (18) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, ZEINA, **doan tokira doala**, ahalegintzen deN ikasten eta erabiltzen tokiko hizkuntza eta izateko era
- (19) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, **doan tokira doala**, ahalegintzen denA ikasten eta erabiltzen tokiko hizkuntza eta izateko era
- (20) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, ETA (BERA), **doan tokira doala**, ahalegintzen da ikasten eta erabiltzen tokiko hizkuntza eta izateko era

Banan-banan aztertu ditut hiru erlatiboak. Orain toketan da hirurak batera jorratzea, perpaus osoa. Lehenengo eta bat, zeinismoa erabiliko dot hirurentzat:

- (21) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, ZEINA adurra dariola egoten deN entzuten zelan darabilen erdera nekazariak Valladolid aldean; ZEINARI barrua gozotasunez betetan jakoN Andaluzian bertako abestiekin; **eta** ZEINA, doan tokira doala, ahalegintzen deN ikasten eta erabiltzen tokiko hizkuntza eta izateko era

Ikusten dozunez, irakurlea, hiru zeinismoetan (sekuentzietan), *eta* juntagailua sartu dot bigarrenetik hirugarrenera bitartean (koma eta guzti daukala aurretik). Bigarren eta hirugarren sekuentzietan kendu egingo ditut zeinismoak:

- (22) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, zeina adurra dariola egoten den entzuten zelan darabilen erdera nekazariak Valladolid aldean; gozotasunez betetan jako barrua Andaluzian bertako abestiekin; **eta**, doan tokira doala, ahalegintzen da ikasten eta erabiltzen tokiko hizkuntza eta izateko era

Hiru sekuentzietan aditzak aurreratu egin ditut (halan egin ohi da ekintzak egonez gero bata bestearen atzean, sailean):

- (23) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, zeina egoten den adurra dariola entzuten zelan darabilen erdera nekazariak Valladolid aldean; betetan jako barrua gozotasunez Andaluzian bertako abestiekin; *eta* ahalegintzen da, doan tokira doala, ikasten eta erabiltzen tokiko hizkuntza eta izateko era.

Beste zeinismoa be erabili leiteke, hau *bait-* bidez (*zein bait-*), baita erlatibo apositiboa be (*-ena*). Ikusi daigun atzenengo hori:

- (24) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, egoten denA adurra dariola entzuten zelan darabilen erdera nekazariak Valladolid aldean; betetan jako barrua gozotasunez Andaluzian bertako abestiekin; *eta* ahalegintzen da, doan tokira doala, ikasten eta erabiltzen tokiko hizkuntza eta izateko era.

Eta juntagailuaren bitartez (lagun dauala erakusle bat *-bera(u)-*, aukeran), honan geratzen da perpausa:

- (25) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat, ETA (BERA(U)) egoten da adurra dariola entzuten zelan darabilen erdera nekazariak Valladolid aldean; betetan jako barrua gozotasunez Andaluzian bertako abestiekin; *eta* ahalegintzen da, doan tokira doala, ikasten eta erabiltzen tokiko hizkuntza eta izateko era.

Beste proposamen bat egingo dot, ezohikoa, ez dauka-eta ez erlatibo apositiborik ez juntagailurik, eta bai puntu bi, toki egokian, nik uste:

- (26) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat: egoten da adurra dariola entzuten zelan darabilen erdera nekazariak Valladolid aldean; betetan jako barrua gozotasunez Andaluzian(,) bertako abestiek; eta ahalegintzen da, doan tokira doala, ikasten eta erabiltzen bertako hizkuntza eta izateko era.

Hor hasikeran, puntu bien ostean, sartu leiteke erakusle bat (*bera(u)/berori*):

- (27) Ezagutzen dot euskaltzale sutsu bat: BERA(U)/BERORI egoten da adurra dariola entzuten zelan darabilen erdera nekazariak Valladolid aldean; betetan jako barrua gozotasunez Andaluzian(,) bertako abestiek; eta ahalegintzen da, doan tokira doala, ikasten eta erabiltzen bertako hizkuntza eta izateko era.

Hor ikusten danez, zalantzea daukat komea jarri behar ete dan. Beste orraztu bat egin leiteke *bertako abestiek*in dagoan lekuan erabilia *bertako abestiek* entzuten. Azken testutxu horren gainean, perpaus bakarreakoa, zeinean entidade bat dagoan hiru erlatibo jokatuz osatua, inork gura badau informazio gehiago, ikusi begi *Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (I), 7. unitatea* Kaltzakorta, 2007.

2. Konklusioak

Sartaurrean esan dogu edozer mezu, testutzat hartuko bada, hiru baldintza bete behar dituala (koherentzia, kohesioa eta egokitzapena). Guk aztertu ditugu hiru testu -halan deitu deutsegu- progresino tematikoaren aldetik (bera koherentziaren azpiarloa, aditu gehien ustez). Azterketan ikusiak ikusita, esan leiteke hiru testu jorratuok testuak dirala izan? Edo, zenbaiteraino dira testuak?

Argi dago, testuok aztertuta (eta oraingo testu gehienak), jaiok garala hizkuntzazko arloan, batez be erlatiboak erabilten (edozelakoak -jokatuak zein jokatubakoak-, gura adina eta nongura). Gain-gainekoak gara gaitasun linguistikoan (ondo dakigu gramatika). Baina testu bat idazteko, nahiko ez-eta artetsuak izatea hizkuntzan, trebeak izan behar dogu gaitasun diskursiboan (testualean), eta horretan moldakatz agertzen gara, kamuts.

Laburtzeko, zer hobetu askotxo dago oraingo testu gehienetan, nahi euskera batuan idatziak, nahi bizkaitarrez (edo edozein euskalkitan). Sekuentzietan badogu ondo informazioa, salto barik eta transizino onak eginda, testu komunikagarri onak lortuko ditugu, eta irakurleak ez ditugu ez alperrik nekatuko ez uxatuko.

3. Aipamenak

Alberdi Larizgoitia Xabier eta Sarasola Errazkin Ibon. (2001). *Euskal estilo libururantz*. Bilbao: EHU.

- Alberdi, X., Garcia, J. (1996). <<Zein (...) bait-/n>> egitura, in I. Zabala (koord.).
- Aznar Eduardo; Cros Anna; Quintana Lluís. (1991). *Coherencia textual y lectura*. Barcelona: ICE/HORSORI.
- Beaugrande, Robert-Alain de; Wolfgang Ulrich Dressler. (1972). *Introducción a la lingüística del texto*. Barcelona: Ariel, 1997.
- Brown G., Yule G. (1993). *Análisis del discurso*. Visor Libros.
- Calsamiglia, Helena; Amparo Tusón. (1999). *Las cosas del decir*. Barcelona: Ariel.
- Euskaltzaindia. (1993). *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. (1999). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - V* (Mendeko Perpausak-I). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia - Jagon Saila. (2008). *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Hidalgo, B. (2002). Hitzen ordena esaldian. *Senez* 25 zb.
- Hidalgo, B. (2006). Erlatibo aukerak euskaraz. Ikasi eta irakatsi. *Hizpide* 59. zb.
- Kaltzakorta Mentxaka, M. (1997). Norbaiten edo zerbaiten berri ematen. *Administrazioa Euskaraz*, 15, 16-17.
- Kaltzakorta Mentxaka, M. (2007): *Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (I)*: Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Mitxelena, K. (1992). *Orotariko Euskal Hiztegia (V)*. Euskaltzaindia
- Moeschler, Jacques eta Reboul, Anne. (1999). *Diccionario enciclopédico de pragmática*. Madrid: Arrecife Producciones.
- Larringan, L. M. (1998). << Testuaren analisirako zenbait nozioren kontzeptualizazio bidean >> in I. Idiazabal/L.M. Larringan *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratzeko baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*. Gasteiz-Vitoria: Arabako Foru Aldundia..
- Larringan, L.M. (2000). *Hizkuntzaren kalitatea. Ikastaria 11* (Eusko Ikaskuntza). 65-75.
- Larringan, L.M.; Idiazabal, I. (2005). Euskararen kalitatea aztertzeko marko teorikoa eta metodologikoa. *Ikastaria* 14 (Eusko ikaskuntza). 9-29.
- Portolés J. (2004). *Pragmática para hispanistas*. Edit. Síntesis. 2004.
- Rubio, J. (2002). *Euskararen garabideak*. Albedania.
- Sainz Matilde. (2001). *Azalpenezko testu entziklopedikoaren azterketa eta didaktika*. Donostia. Erein.
- Simone Raffaele. (1993). *Fundamentos de Lingüística*. Barcelona. Ariel Lingüística.
- Zabala, Igone (koord.). (1996). *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknika*. Bilbo. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.